

KONFIANTZA

Sina ezazu zure osasun zentroko pediateraren desagertzearen aurka



Gure herrialdeak munduko osasun sistemarik onenetakoa dauka, Lehen Mailako Arreta bikaina izanik. Pediatrian eta Familia Medikuntzan espezializaturiko medikuak ditugu Osasun Zentroetan. Hiritar orok esku-eskura ditu, osasun-emaiza onak eta erabiltzaileentzako inkestetan gogobetetze-maila altua lortzen dituzte.

Badira zenbait urte, pediatria eskasia dagoela osasun zentroetan, eta haurren osasun-asistentziarako eredu espainiarra galzori larrian dago, administrazio desberdinen aurreikuspen- eta plangintza-faltagatik eta baliabideen erabilera-eskasagatik. Ez dute aitortzen Pediatria-kontsultek jaioberrien, haurren eta nerabeeen osasunean duten eragina, ezta familientzako garrantzia ere.

Pediatrok 15 urte luze daramatzagu egoera hau salatzen. **Eta ez dute konponbide eraginkorrik ematen.**

Egoera hau larriagotzen ari da aurrekontuetan gertatzen ari diren murrizketak direla-eta. Horrek Lehen Mailako Arretako lan-baldintza ez hain erakargarriak eragiten ditu, eta horien ondorioz, pediatria berriek lanpostu desberdinetara jotzen dute.

2018ko otsailaren 1

Kanpaina honi buruzko argibide gehiago honako web-orrialdeetan:

- Espainiako Lehen Mailako Arretako Pediatria Elkarte (Asociación Española de Pediatría de Atención Primaria, AEPap): www.aepap.org M
- Espainiako Ospitalez kanpoko eta Lehen Mailako Arretako Pediatria Sozietatea (Sociedad Española de Pediatría Extrahospitalaria y de Atención Primaria, SEPEAP): <https://sepeap.org>

AEPap-ek eta SEPEAP-ek osasun zentroetako pediateraren desagertzearen kontrako sinadura-bilketa kanpaina hau Estatu mailako agintariei aurkezteko asmoarekin burutzen ari dira. Erregistratuko diren datuak AEPap-en eta SEPEAP-en Zuzendaritza Batzordeek bilduko dituzte, eta, aipaturikoaz gain, beste xede batzuetarako erabiliko ez dituztelako konpromisoa adierazten dute. Halaber, kanpainen parte hartzen duten pertsona guztiek

izango dute horietan sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta kontra egiteko eskubidea, Datuen Babeserako Legeak (LOPD - Lege Organikoa 15/1999) arautzen duen moduan.

Sinatu eskaera hau administrazioek haur eta nerabe guztiek Espainiako osasun sistema publikoko osasun zentroetan pediatrian espezializaturiko profesionala edukitzeko duten eskubidea berma dezaten

